

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2023ko azaroaren 29a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko urriaren 26ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Orioko Udalak 2020an sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzea, Orioko udalerriko 8. sektorean, Munton, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea ahalbidetzeko.

- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko «Zaharren babeslekua» taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua, prozedura ireki bidez kontratatzeko baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak.
- 4.- Berrestea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena. Aldaketa puntuala Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokie eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu du.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2024ko aurrekontu orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2024 urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 7.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal-taldeak aurkeztutako mozioa euskal zaintza-eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldekoa.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO URRIAREN 26KO UDALBATZARRAREN OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa ez dagoela ados nola jaso diren aktaren zirriborroko 10. puntuan (eskariak eta galderak) Noemi Ostolaza zinegotziak eta alkateak egin zituzten parte-hartzeak Israel eta Palestinaren artean sortu berri den gatazkari buruz. Hori dela-eta, aktaren zirriborroaren onarpena mahai gainean uztea proposatzen du, hurrengo udalbatzarreko bilkurara arte. Ordurako, puntu horren idazketaren zirriborro bat proposatuko du berak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

MAHAI GAINEAN UZTEA 2023ko urriaren 26ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren aktaren zirriborroaren onarpena, hurrengo udalbatzarraren bilkura arte.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ETA ORIOKO UDALAK 2020AN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA LUZATZEA, ORIOKO UDALERRIKO 8. SEKTOREAN, MUNTON, ALOKAIRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEA AHALBIDETZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko azaroaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA lau urtez luzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Orioko Udalak 2020an sinatutako lankidetz hitzarmena, Orioko udalerriko 8. sektorean, Munton, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea ahalbidetzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmena luzatzeko akordio hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoak azaltzeko, Olatz Santamaria zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du 2020an sinatutako hitzarmenaren indarraldia 2024ko urtarilaren 8an amaitzen dela, ez dagoela denborarik hitzarmena gauzatzeko, eta, beraz, luzatzeko tramitea egin behar dela bi administrazioek hartutako konpromisoak gauzatu ahal izateko.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO «ZAHARREN BABESLEKUA» TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZUA ETA GARBIKETA- ETA MANTENTZE-ZERBITZUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko azaroaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Zaharren babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeke baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoek agiriak.

Emandako botoak azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du aipatutako agiriak onartzearen arrazoia dela gaur egungo adjudikaziodunak uko egin diola adjudikazioari bere borondatez. Adjudikaziodunarekin adostu da Zaharren babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua ematen jarraituko duela adjudikaziodun berria sartu arte.

4.- BERRESTEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA. ALDAKETA PUNTUALA DIKE-KOFRADIA EREMU URBANISTIKO EZ-JARRAITUEI DAGOKIE ETA DIKEKO KONTZERTAZIO BATZORDEAK SUSTATU DU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du.

Orioko udalbatzarrak 2018ko abenduaren 27an egindako ezohiko bilkuran behin betiko onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko martxoaren 14an argitaratutako plangintza- eta kudeaketa-hitzarmenaren esparruak arautzen du Dike-Kofradiako esku-hartzea.

Hitzarmen hori Orioko Udalak, Orioko San Nikolas arrantzale-kofradiak eta Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 14. eremuko —Dike— Kontzertazio Batzordeak sinatu zuten. Azken horrek ordezkatzeko du Dike azpierzemuko lurren jabetza osoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoena.

Aldaketa puntual hau hitzarmen horretatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak betetzeko ezartzen da, eta aurrea hartzen dio Orioko 2012ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dokumentuaren tramitazioari, 2018an onartutako eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak Udalak eskuordetuta sustatutako HAPOn berrikusteko irizpide eta helburu orokorren arabera egingo dena.

Aldaketa puntualak barne hartzen ditu 2012ko HAPOn Dikearen 14. eremua eta Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kofradia eremua, bizitegitarako erabilera nagusia duen hiri lurzoru ez-jarraitua osatuz: eraikuntza-programa Diken gauzatuko da eta Kofradiako orubea ekipamendu publikorako eta pribaturako (Kofradia erabilera) lurzoru gisa kalifikatuko da.

Aldaketa puntualaren dokumentu urbanistikoa honek Dike-Kofradia eremu ez-jarraituaren egiturazko antolamendua eta antolamendu xehakaturak biltzen ditu eta, horrela, garapen-plangintza formulatu beharra saihesten du.

Idazketaren kostua Kontzertazio Batzordeak hartuko du bere gain eta eremu ez-jarraituaren jabeen artean ordainduko dute.

Era berean, hirigintza-dokumentu horrek antolamenduaren koordinazioa bermatzen du Dike eta Kofradia azpierzemuen eta dagoeneko garatuta dauden eremu mugakideetan ezarritako antolamenduaren artean, eta bermatzen du antolamenduaren funtsezko elementu komunitarioak artikulatzen direla eta indarrean dagoen plangintza orokorrean ezarritako sistema orokorrekin integratzen direla.

Orioko udalbatzarrak erabaki hauek hartu zituen, besteak beste, 2021eko abenduaren 30ean egindako ohiko bilkuran:

1.- ONTZAT EMATEA ETA ATZERA BOTATZEA jendaurreko epean aurkeztutako alegazio eta proposamenak, erabaki honen azalpenean jasotako terminoetan, Hirigintza-batzordeak 2021eko abenduaren 23an emandako diktamenaren arabera.

2.- BEHIN-BEHINEKOZ ONARTZEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen aldaketa puntuala, DIKE-KOFRADIA eremu urbanistikoa etendunei dagokiena eta

Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu duena, funtsezko aldaketarik egin gabe lehen onarpeneko erabakiarekiko eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoa betez.

Inpaktu linguistikoaren ebaluazioaren dokumentua eta ingurumeneko azterketa estrategikoa ere espedientearen daude.

3.- BIDALTZEA aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokion txostena egin dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean. Txosten hori zuzenean jakinaraziko zaio Udalari, planaren tramitazioarekin segi dezan.

4.- BIDALTZEA aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa ingurumen alorreko organoari, ingurumeneko deklarazio estrategikoa eman dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean, espediente osoa jasotzen duenetik kontatzen hasita.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren emaitza ikusita, hiru hilabeteko epean, aipatutako aldaketa puntuala behin betiko onartuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako txostenetik eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren emaitzatik ondorioztatutako baldintzetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2022ko apirilaren 6an egindako Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Atalaren 2/2022 bilkuran, gaiari buruzko txostena eman zuen.

Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusiak, 2023ko irailaren 5ean, txostena eman zuen bere eskumenen esparruan. Bertan, ondorio gisa, Zuzendaritza Nagusi horrek aldeko txostena eman zion Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari, Orioko Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokienez.

Orioko Udalak, 2023ko irailaren 27ko ofizioaren bidez, Orioko Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketaren espediente urbanistikoa bidali zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2026 Legearen 91. artikuluan eta Hirigintza Antolamenduko Planak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko onarpena jaso dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak, 2023ko azaroaren 2an hartutako erabakiaren berri eman dio Orioko Udalari (ofizioaren sarrera-data: 2023ko azaroaren 3a; erregistro-zenbakia: 4498). Erabaki horren bidez, Orioko Udalari itzuli egiten zaio Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketaren espediente urbanistikoa, gabezia hauek konpontzeko:

- Udalbatzarraren erabakia, aipatutako espediente urbanistikoaren azken bertsioaren behin-behineko onarpena berretsiz.
- Bestalde, bidalitako dokumentazio teknikoa zuzentzeko, Orioko Udalak Foru Aldundiaren esku jarri beharko du dokumentu teknikoaren ale oso bat, behar bezala diligentziatua eta euskarri digitalean sinatua, eta bertan jasoko dira Plan Orokorraren Aldaketaren bertsioak, Udalak legez aurreikusitako prozeduraren fase desberdinetan onartuak.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Lurraldearen Antolamenduko Planak eta Hirigintza Antolamenduko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 dekretuan xedatutakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Tokiko Garapena batzordeak 2023ko azaroaren 3ko bilkuran egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzio botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- BERRESTEA Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatutako Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena, inolako funtsezko aldaketarik egin gabe lehen onarpeneko erabakiarekiko, eta 2020ko martxoaren 24ko 46/2020 dekretuaren 28. artikuluan xedatutakoa betez. Berretsitako espediente urbanistikoa tramitatutako azken bertsioa da, behin Euskadiko Lurralde Antolamendu batzordearen eta Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak beren txostenak eman ondoren egindakoa.

2.- BIDALTZEA aipatutako aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari, behin betiko onartzeko behar den guztia egin dezan, gaia dela-eta indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez.

Emandako botoak azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, eta guztiz berresten ditu aipatutako aldaketa puntualaren lehen onarpenean adierazitako argudio guztiak. 2020ko abenduaren 23ko ezohiko udalbatzarrean onartu zen aldaketa hori, eta, beraz, hango termino beretan berresten ditu. Argudio haietatik ondorioztatzen da Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren espediente urbanistikoak, Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu duenak, guztiz betetzen dituela indarrean dauden lege urbanistikoak. Adierazten du, baita ere, Euskadiko Lurralde Antolamendu Batzordeak eta Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenak aldekoak direla eta ez dutela inolako baldintzarik jartzen.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2024KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2024ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko azaroaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2024ko aurrekontu orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrerren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.480.506
2	Zeharkako zergak	118.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	2.044.215
4	Transferentzia arruntak	5.714.208
5	Ondarezko diru-sarrerak	249.174
6	Inbertsio errealen besterentzea	60.000
GUZTIRA		9.666.103

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.978.393
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	3.772.578
3	Finantzaketa-gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.652.245
5	Kreditu globala	125.000
6	Inbertsio errealak	137.887
GUZTIRA		9.666.103

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2024. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2024ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza–Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aurrekontu orokorra behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du lan ona egin dela Barne Antolaketa batzordearen bileretan Udalaren 2024ko aurrekontu orokorra lantzeko, eta, bere talde politikoak aurkeztutako zuzenketak onartu direnez, baieztatu botoa eman diotela aurrekontua onartzeari. Noemi Ostolaza zinegotziak adierazten du, baita ere, bakardadeari eta pobreziari buruzko azken azterketa 2018koa dela, eta, beraz, guztiz egokia iruditzen zaiola 2024ko aurrekontuan aurrekontu-partida bat jasotzea kontsumo eta jardura-planak aztertzeke. Horrez gain, nabarmentzen du 2024ko aurrekontuan bi partida ireki ezarri direla, 6na eurokoak: bat, Ibai Ondo ibilbidean N-634 errepidearen azpiko pasabidea egokitzeko azterketa egiteko; eta bestea, Kosta tailerreko instalazioak aztertu eta optimizatzeko azterketa egiteko.

Nagore Rementeria zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza, eta pozik dagoela adierazten du, 2024ko aurrekontua berriz ere garaiz onartu delako, urte hasieran indarrean sartzeko behar den denborarekin. Nabarmentzen du Barne Antolaketa batzordeko kideen artean oso dinamika ona izan dela aurrekontuari aurkeztutako zuzenketak aztertu eta onartzeko.

Inaxio Alguacil zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du zenbakien atzean herritarrei zuzendutako jarduera ugari dagoela, eta hauek nabarmendu nahi dituela:

- Udaltzaingorako administrari-lanpostu bat sortzea.
- Kale-garbiketa zerbitzuak handitzea.
- Lan-eskubideen babesa handitzea.
- Zaintza- eta babes-sistema baten azterketa
- Langileen kontratazioa
- Saregile Emakumeon* Etxearen jarduerak
- Kontsumoari buruzko hainbat azterlan egitea.

Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du, baita ere, nabarmendu nahi duela partida ugari daudela gizarte ongizatearen arloko jarduerak sustatzeko eta, azken urteotan, horretarako gastua hirukoiztu egin dela. Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du, bestalde, nabarmentzekoak iruditzen zaizkiola, batetik, hezkuntzaren arloan herriko bi ikastetxeekin egindako prozesu mankomunatua eta, bestetik, merkataritza arloko ekintza-plana. Bukatzeko, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du 2024ko udal-aurrekontuan partida asko daudela aurreikusita oriotarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko, eta, bestalde, egoera ekonomiko osasuntsuan prestatutako aurrekontuak direla, Udalak ez duelako zorrik eta ez duelako maileguen beharrik beharrezko inbertsioak finantzatzeko.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2024 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko azaroaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2024ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2024ko plantilla organikoa, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo

lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2024ko plantilla organikoa onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA EUSKAL ZAINZTA-EREDU SENDO, ERALDATZAILE, FEMINISTA ETA KOMUNITARIO BATEN ALDEKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatzeko. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan; eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredua lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, eragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan.

Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (% 22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratortzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzeko ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, oriotarrok eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Orioko Udalak konpromisoa hartu du Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berrian parte hartzeko, eta zainketa-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza. *Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatezkoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.*

2. Zainketen profesionalizazioa. *Zaintza-modu formal eta informalean diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarriketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.*

3. Etxeko zaintza lehenesten duen sistema. *Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute. Horregatik, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.*

4. Sistema inklusiboa eta berdinzalea. *Zaintzaren ardura emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu desberdintasun-egoera hori konpontzeko neurriak hartzea feminismo konprometitu eta berdinzale batetik, baita arraza edo jatorri etnikoarekin lotutako diskriminazioekin amaitzeko ere, lanerako segregazioa eta desberdintasun sozialak murriztuz.*

5. Koordinazio soziosanitarioa areagotzea. *Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetza handiagoa eta hobeia izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jaso dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.*

6. Komunitatea indartzea. *Giza garapen iraunkorrerako gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.*

7. Zainketen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea. *Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zainketa-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaunaldien arteko konpromiso berrituarekin.*

8. Zainketen elkarlaneko gobernantza. *Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ)], guztira **HIRU ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu); guztira, **HAMAR KONTRAKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

EZ ONARTZEA EAJ udal-taldeak aurkeztutako mozioa euskal zaintza-eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldekoa.

Emandako botoak azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ezezko botoa eman duela, mozio horren edukiak ez duelako gaur egun itun sozial bat indartzen, batez ere kontuan hartuta onartu berri den 2024ko aurrekontuan dagoeneko jasota dagoela partida bat zaintzaren gaia aztertzeko. Adierazten du, baita ere, EH Bilduk segituko duela, 2019tik ari den bezala, lan isila egiten arlo honetan.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,